

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2025eko EKAINA · 345 zenbakia

**Josu Santos,
moda sustraiaietara
ekarrita**





ASUA

CARBURANTES

EFIZIENTZIA KALITATEA KOKAPEN ezin hobea ermuarrentzat

Apirilaren 14an zabaldu zen Asua Carburantes gasolindegia, Eibarko Asua Erreka kalean. Gasolina-zerbitzugune modernoa da, eskuragarria eta erregaia azkar, merke eta arazorik gabe hartzeko pentsatua. Kalitate handiko erregaia dituzte eta sarbide eroso eskaintzen du ermuarrentzat saihebidetik, sarrera zuzena baita bertatik, bezeroaren denbora optimizatuz. Eibarko erdialdetik ere heldu daiteke bertara, Barakaldo kaletik.



ASUA CARBURANTES

- 24 orduz zabalik
- Fidelizazio-txartela eskuratu daiteke webgunean
- Ibilgailu elektrikoentzako karga puntua
- Doako aire- eta ur-makina, erabiltzaile guztientzat eskuragarri



SARBIDE EROSOAK:

- Ermutik
- Eibarko erdigunetik
- Elgoibartik (saihebidetik)

Zerbitzu aipagarriak:

- **Efizientzia:** Asua Carburantes-en balio nagusietako bat da. Gasolindegia diseinatu esker, depositua azkar bete daiteke, itxaron beharrik gabe, sistema aurreratu eta intuitibo bati esker. Gainera eskaintzen diren erregaia kalitate gorenekoak dira, eta horrek ibilgailuaren errendimendu hobea eta ingurumen-inpaktu txikiagoa dakar.
- **Prezioa:** Tarifa lehiakorren politikari eusten dio, kalitate-prezio erlaziorik onena bermatzeko. Horri gehitu behar zaio erregaia gehigarri-sistema eskusiboa, efizientzia eta motorraren garbiketa hobetzen dituen, eta emisioak murrizten dituen, bezeroarentzat inolako kostu gehigarririk gabe.
- **Malgutasuna ordaintzeko:** Eskudirutan ordaindu daiteke eta zuzenean terminalean kanbioak jasotzeko aukera eskaintzen du, bulego batera joan edo kupoak erabili beharrik gabe.

ESKAITZA MUGATUA!!

30 eurotik gorako
gastua erregaian,
5 litroko haizetako-
garbigailua opari!



Asua Erreka 11 (Eibar)

asuacarbures.com

Gaia: Ume-kantua

Zapi zuri honekin

(Entzuteko: www.alboka.es)

drogeteniturrei.eus

Zapi zuri honekin
jolasten gera,
lehenengo alde batera
gero bestera.

Zapi zuria aurrera,
zapi zuria atzera
zapi zuri honekin
jolasten gera.



**Euskal
Birusa
Elkarteak**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogeteniturrei.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Josu Santos.

LAGUNTZAILEAK:

Anaitasuna Ikastola, Jantxo Díez,
Patxi López, Valentin Mugarza
eta Nahia Rojo.

ARGAZKIAK:

Peio Agirre, Rocío Alhama, Feliciano
Castrillo, Klemen Corredra, Esko-
labarri, Estibalitz González, Valentin
Mugarza, Urko Riaño, Josu Santos,
Ignacio Urreta eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Alex Gonzalez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrei ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Josu Santos Blanco · Sobrado do Bispo (Barbadás - Ourense)

“Txikia nintzela joan nintzen Ermutik, eta orain pena ematen dit euskarari eutsi ez izanak”

Zortzi urte zituenean utzi zuen Ermua, eta Galiziara bizitzera joan zen. Gaur egun, modaren munduan egiten du lan, eta ahal duen guztietan Ermura bueltatzen da familia eta lagunak bisitatzera.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Zergatik joan zinen Ermutik?

Zortzi urte nituenean joan nintzen, lan kontuengatik. Hala ere, Batxilergoa amaitzean, Donostian Patroigintza eta Moda ikastea erabaki nuen, eta aldi baterako Ermura bizitzera itzuli nintzen.

Zenbat urte daramatzazu Ermutik kanpo?

20 urte daramatzat Galizian bizitzen, baina esan bezala, ikasi bitartean Ermuan bizi izan nintzen berriro.

Zertan egiten duzu lan Galizian?

Gaur egun, nire lana eta Xaneiroekin dudana proiektu pertsonala uztartzen ditut. Nire alderdi artistikoa gehiago sustatzeak, nire tresna teknikoekin batera,





**ZUZENBIDE
KONTUAK**

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

JULEN



**JULEN IZARRA
GARRAIOAK**


Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

**AMAIA
HARATEGIA**



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



denbora gutxiko gauza ematen du, hala izan ez arren. **Egin duzun azken moda-bildumari "Denbora" izena jarri diozu. Euskararekin lotura izaten jarraitzen duzu?** Tristuraz aitortu behar dut nahiko nukeena baino gutxiago. Oso txikia nintzen Ermutik irten nintzenean, eta gurasoek ez dakitenez euskara, ahaztu egin nuen, erabilerara faltagatik. Testuinguruaren arabera, ulertzeko gai naiz, eta termino eta esamolde asko daude oraindik ere ulertzen ditudanak, jakina, han bizitzen egon nintzelako. Baina uste dut saiatu beharko nintzatekeela berritara ere gogoratzen, orain pena ematen didalako eutsi ez izanak. Agian hori izan zen azken proiektu hau sustraletara eta euskarazko titularrera itzuli behar izatearen arrazoietako bat.

Nola moldatzen zara galegoz?

Txiki-txikitatik eskolan ikasi nuen, eta aitona-amonei eta herriko jendeari entzuten nien oporretan etortzen

"Maite dut jende politex inguratzea eta elkarriketa interesgarriak izatea"

"Arzúa gaztarekin hasi, zamburiña batzuekin jarraitu, eta nahi duzun guztia ogi arrailetan pasatu..."



Josu Santos diseinatzaile ermuarra. Ondoko orriko argazkian, berak diseinatutako "Denbora" moda-bildumarekin.

ginenean. Gaur egun egunero erabiltzen dut galegoa.

Zer egiten duzu denbora librean?

Ba "denbora libre" horretatik zati handi bat erabiltzen dut nire kabuz ateratzen ditudan patroigintzako, ebaketako eta jantzigintzako proiektuak gauzatzeko. Horretaz gain, asko gustatzen zait planak egitea: zinemara joatea, kontzerturen batera ihes egitea zuzeneko musika asko gustatzen zaidalako... Kostaldera joatea inoiz ez da plan txarra, paseatzeko bakarrik bada ere! Maite dut jende politex inguratzea eta elkarriketa onak izatea.

Zein da bertako janari tipikoa?

Zaila da plater bat bakarrik aipatzea! Janaria gozatzen dudanez, esan behar dut Galiziako gastronomiak ez duela justizia egiten dion definiziorik. Arzúa gaztarekin hasi, zamburiña batzuekin jarraitu, eta nahi duzun guztia ogi arrailetan pasatu. Nire bi amonak galiziarak dira, beraz, galiziar janaria asko gustatzen zait.

Askotan etortzen zara Ermura?

Ahal dudan bakoitzean saiatzen naiz han daukadan familia ikusten eta lagun batzuekin berriz elkartzeko.

Ermua Zinema, zine xume baten istorio handia (I)

Herriari zine eskaintza emateko asmoarekin 1955ean sortu zen lehen zine-aretoa izan zen Zinema eta 70 urte geroago funtzio bera betetzen du, herriko kultur agenda aberatsaren erakusleho esanguratsu bihurtuta. Sortze efemeridearen aitzakiarekin, bere historiaren ateak parez pare zabaltu eragin dizkiogu.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Argazkiak **FELICIANO CASTRILLO** eta **IGNACIO URRETA**

Etxeetan ez zegoen oraindik telebistarik, baina zinearekiko zaletasuna gorantz zihoala eta batez ere gazteek Eibarrera alde egiten zutela erreparatuta, On Teodoro Zuazua parrokoak ganorazko zine bat eraikitzea pentsatu zuen. Haren aurretik bazen parrokiakoa, domeka arratsaldeetan elizako saloian Super8-ko pelikulak ematen zituen. Benito Garcia luzaroan izan zen abadearen laguntzailea eta Zinemako Batzordeko kidea. Hasierako urte haietan oraindik ume bazen ere, entzunda ditu gauza asko eta haiek ekarri dizkigu akordura.

Bere esanetan On Teodororentzat lehen ardura lekuarena izan zen: aukera desberdinak aztertuta, Iparragirre kalean Motxu baserriaren jabegokoa zen lur zati bat erosi zuen, ordura arte ortu izandakoa. Orubea prestatzeko indusketa guztia pikatxoi eta pala hutsez egin zen, makinaria gabe. Hasierako dirua etxekoei eskatu zien eta, ez zela iristen ikusita, bono batzuk atera zituen salmentara, herritarren artean zabaltzeko. As-

koren ekarpen txiki eta handiei esker gauzatu ahal izan zen Zinema hura eta horregatik On Teodorok herriarena zela esateko ohitura zuen.

Fides Norte Distribuidora sortu zen sasoi beretsuan, pelikulaz hornituko zituena herri askotako zinemak, parrokia ingurukoak gehienak. Zirkuito moduko bat osatu zen, filmak herriz herri proiektatzea ahalbidetzen zuena, eta hura izango zen Ermua Zinemako hornitzaile nagusia.

1955eko maiatzaren 29ko datarekin eman zen inauguratutzat Ermua Zinema ekitaldi kultural jendetsuarekin, lehenagotik egin ziren arren autoritateen arteko inaugurazio eta elizaren bedeinkazio. Iruñeko Orfeoia konbidatu zuten eta herritarrek antzerkia, dantzak eta abestiak prestatu zituzten emanaldirako. Horrez gain, Eibarko Feliciano Castrillo argazkilaria enkargatu zen areto jaio berriaren bataio-erreportajea egiteaz.

Boluntarioei esker

Martxan jarrita, lan eta ardura desberdinak gehienbat boluntarioekin beteko ziren, laguntzeko prest zegoen konfiantzazko jende ugariaren eskuzabaltasuna tarteko: akomodadoreak, proiektistak, sarrera-saltzaileak, atezainak, garbitasuneko arduradunak, diru-kontueinak... Han egon ziren Nizeto, Antonio, Juanita, Geno,



Zinemaren kanpoko aldean lehen zuzendaritza batzordeko kideak.



Zinemaren inaugurazioko ekitaldia.



Meltxor... banaka batzuk aipatzearren.

Elkartasun asmoz jaiota, zinema ezin zen enpresa bat izan eta kudeaketa bermatzeko Sociedad Benéfico Recreativa izeneko elkarte sortu zen. Laster jaiotzen ere Elkartasun Tonbola, herritarrek laguntzea xede bakarrarekin udaro zabaltzen zena. Bateko zein besteko jarduerarekin lortutako diru-etekinak jubilatuei egun osoko hiruzpalau txango antolatze eta ospitaleetan denbora luzez ingresatuta zeuden gaixoei opariak egiteko bideratuko ziren. “Don Teodorok guztion zerrenda zeukan eta Gabonetan ospitaleez ospitale ibiltzen zen eurentzako propio erositako detalletxook eramatzen”, azaldu du Benitok.

Adinekoen lehen egoitza hornitzeko ere Zinemako diru-irabaziez baliatu ziren. Gaur egun dagoen leku berean egon zen hasierako jubilatuen etxea, Balerio Gandiaga eta Aretio anaien dohaintzari esker 1971n zabaldu zena: taberna, karta-jokorako mahai batzuk... sortzen zituen gastuei aurre egin eta adinean gora zihoazen herritarrei elkargune bat eskaintzeko xedearekin.

Bilboko Albia zineetan kentzen zituztela eta aretoko butaka guztiak aldatzeko aukera iritsi zitzaizen ere: Zinemako zuzendaritza batzordekoa zen Isaac Totorikak herrian laguntza eskatu eta asteburu oso batez ehun bat



Inaugurazioa egunean taularatutako antzerkia

“Askoren ekarpen txiki eta handiei esker gauzatu ahal izan zen Zinema”

“Boluntario guztiak gonbidatu genituen eta 60-70 lagun batu ginen”

pertsona jardun zuten zaharrak erretiratu eta berriak lotzen. Isaacen fraidetzako bidea hartuko zuela iragarri zuenean, batzordekide berriak sartu ziren taldean: Jose Marcos, Emilio Pradera eta Benito Garcia bera azken Batzordea osatuz. Ordurako jada ekitaldi kultural ugari egiten ziren bertan eta ikusten zen udalarekin akordioetara iristea zela bidea, “gero eta zailagoa zen Zinemaren kudeaketa eta mantenua, eta guk sumatzen genuen udala zela irtenbide bakarra”, gaineratu du.

Filmak aurretiaz ikusteko ardura Fidesena zen. Batzuk, tematika gogorrekoa ziren arren, banatzailen proiektatzea gomendatzen ziren, “jendea ikustera kanpora joan beharrean, herrian geratzeko” aipatu du. Eduki pornografikoko pelikulak ere etorri ziren eta eurok, batzorde modura ez zituzten zentsuratu Benitoren esanetan, “gizartea aldatzen zihoan eta guk behintzat ez, ez dakit aurrekoek”, azaldu du.

Prezioengatik behin baino gehiagotan eztabaidatu behar izan zuten “umeen saiokoak ukitu ezinekoak ziren abadearentzat: 7-8 pezetatan, urteetan igo barik izan genituen!”, gogoratu du Benitok irribarretsu. As-tebueruro sei proiektio zituzten; gastuak murrizteko laura jaitsi arren, domeketako umeena amaierara arte mantendu zuten, egun eta ordu berean.



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua

© 943 17 47 44



LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

 @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)



Udalaren jabegora

Egun baten iritsi zen ere udala aurreran-tzean eraikinaz eta haren kudeaketaz arduratuko zen iragarpena, eta pozik hartu zuten guztiek. Lagapen modura eskrituratu zen jabetza dokumentua eta abadeari, jada gaixo zela, etxera eraman zioten, ohorezko lehendakari bezala sinatu zezan. “Ezin genuen une horretan kanpoan laga eta, gauzak zelan diren, hurrengo egunean bertan hil zen, bizi-zikloa Zinemarekin batera itxi izan balu bezala”, azaldu du Benitok. “Azkenean Zinema herrira itzuli zen. Beti pentsatzen zen abadearena eta abadearena zela; berak kudeatzen zuen, bai, baina herritarren ekar-penei esker altxatu zuen eta On Teodorok argi zeukan hori” amaitu du.

Udalak erosi nahi zuen arren, elkertasuneko era-kundea izanda legalki ezin zuen salerosketarik egin eta horren ordez diru kopuru bat jarri zuen, Zinemak jarduera benefiko bat egin zezan. “Udalak emanda-

"Zinema herriarena zen eta azkenean herrira itzuli zen"

"Gero eta zailagoa zen zinemaren kudeaketa eta mantenua, eta Udala zen irtenbide bakarra"



Abesbatza Zinemako inaugurazio ekitaldian.

koarekin bazkari bat egin genuen Zinemaren bolun-tario izandakoak elkartzeko, nolabaiteko eskertza eta omenaldi txikia bihurtu zena. Haren baten ahaztuko zitzaigun norbait, baina guztiak gonbidatzen ahale-gindu ginen eta 60-70 lagun batu ginen. Horrez gain, Caritasi diru-kopuru bat eman zitzaion”, esan digu Benitok, batzordekidea azken unera arte. Gogoan ditu ere lan berean jardundako Bienvenido Gordo, Jose Antonio Benditxo, Jose Marcos, Ignacio Urreta, Juanito Gorritxategi, Antonio Zubizarreta, Emilio Pradera...

2002. urtean kargotu zen udala Ermua Zinemaz. Azken antzerki lana 2008ko urriaren 27an taularatu ostean hasi ziren eraikin osoaren berritzatze lanak. 2011ko otsailaren 24an zabalduko zituen berriro ateak, Ermua Antzokia bezala eta aurrekoak besteko ibilbide luzea egiteko asmoz.



Mar.Isk.Al dejai

Uztailaren 18an, ostirala
Plazan, 20:30ean

Antolatzailea

Babeslea



“Musikiari esker jende asko ezagutu dot”

Urko Riaño Aranguren• Tronpeta eta tronpa jotzailie



Ermuko Alboka Musika Eskolan musika ikasten ebilela instrumentuek aukeratzeko sasoien, tronpetiari egin eutsen kolpe Urkok 9 urtekin. Umetatik musikaz inguratute egon da etxien, aitte eta anaie gitarristak, ama dantzari fine, gaur egun bera da protagonista. Eibarko Bandan tronpa jotzen dau, traje, zapata dotore eta korbata eta guzti. Eta Latuna Bando txarangan, barretz, tronpetie astintzen disfratau eta disfratau eragitten dau.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Zer ikusi zeuntsen tronpetiai beste instrumentuek ez eukenik?

Zortzi urtekin musika eskolan hasi nitzen Ermuen eta bederatzi urtekin tronpeta aukeratu neban. Nik ikusten neban danek aukeratzen ebezala gitarrie, perkusinue... eta nik tronpetie instrumentu barregarrixe ikusten neban, joteko pedorreta batein biher dozu eta asko gustau jatan. Gainera irakasle oso jatorra zan eta asko lagundu eusten. Gero 16 urtekin Eibarko Musika Eskolara jun nitzen Ermutik. Pentsetan neban ate gehixago zabalduko eustezala,



eta holan izen zan. Lehenengo urtien, 2023en, San Juanetako kalejirietan tronpetiaz joteko gonbidapena jaso neban. Gero bandako zuzendariek idatzi eusten nahi baneban bandara sartzeko, ahalmena

baneukelako. Baina momentu horretan tronpeta nahiko euezan, eta tronpa joteko gonbidapena ein eusten klasiak mosutruk jasoko nitxuleta. Eta oso gustora nabil.

Oso desberdine da tronpie tronpetiaz alderatute?

Bai asko, alde asko dago. Bokilie txiki-xaue da eta notak ezkeraz jotzen die,

"Tronpetie instrumentu barregarrixek ikusten neban, joteko pedorreta bat ein biher dozu"

"Tronpakin be oso gustora nabil. Tronpak erregistro gehixago daukez eta oso politte da soinue"

tronpetan eskumiaz, eta tronpan eskumeko eskue sartute euki biher dozu afinatzeko.

Eta zein gustetan jatzu gehixen?

Bueno, ba niri tronpetie gehixago gustetan jata. Errezago jotzen dot, baina tronpakin be oso gustora nabil. Tronpak erregistro gehixago daukez eta oso politte da soinue, soinu goxuaue dauke.

Latuna Bando txarangan tronpetiaz ikusi zaittugu

Bai, marabilla! Eibarko bandara juen nitzenien lehenengoz, batek esan eusten txaranga bat sortzeko asmuakin ebizela eta ia animetan nitzen tronpetiaz. Ensaie-tan hasi ginen, hasieran bost lagun, baina gero gehixago animatu zien, gehixenak Eibar eta Ermukuek; ni mallabittar bakarra, Plazentziko bat, Debako neska bat...

Neskak, bi dagoz, beste danok mutilek gara. Eta orain hor gabiz boluek egitten eta oso gustora, ambiente ona sortzen dogu eta geuk be asko disfrutetan dogu.

Ze instrumentok osatzen dabe txarangie?

Tronpeta, tronboie, saxofoie, tuba, bonbue, kajie eta txindatek. Eta danetik jotzen dogu, gaztientzat, nagusixentzat... Pasodoblelik hasi eta reggaetoiraino, ska, euskal musika eta danetik. Ermuko mutil bat da sortzailie eta harek egitten dittu kantuen moldaketak. Oso ondo pasetan dogu, musikiari esker jende asko ezagutu dot.



Trastelekuak partikularrentzat



Biltegiak enpresentzat

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua
621 325 477 / info@lekubox.com
www.lekubox.com



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



Horacio Decoración
TAPICERÍA - ALTIZARIAS - OSAGARRIAK



VI Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com



"Aurrerago, Donostin Musikenen goi mailako tronpeta ikasketak egitteko asmue badauket"

Eta herri asko be bai, aurtengo udarako saio asko daukeuzue programatute?

Ekainaren 14en Ermuen kintada baten egon ginen jotzen, 21ien Zornotzan, txarangen arteko Haizetara lehiaketan parte hartu dogu, Cantabriara be jutekotan gagoz Rockamundo festibalera. Pasa dan urtien asko, aurtun gehixago, herriz herri ibiliko gara udan Latuna Bando txarangiaz. Nafarroan beste txaranga baten be jotun dot, Altobarrio Band. San Ferminetan urtero urtetun dogu kalera Iruñean.

Orkesta baten joko zenduke?

Aukerie euki ezkeru duda barik. Aurrerago, Donostin


Musikenen goi mailako tronpeta ikasketak egitteko asmue badauket. Horretarako sarrera froga gainditu biherko dot, baina asmue badauket. Ondiño gatzie naz eta badauket denporie.

Bestelako ikasketetan erdi mailako ziklo bat amaittu barri zagoz ezta?

Elgoibarren egin dot Arreta Soziala eta Mallabiko eskolan hezitzaile moduen egin dittut praktikak. Oso gustora egon naz, etxe onduen, ordutegi ona... Hurrengo bi urtietan goi mailako beste heziketa ziklo bat egingo dot, Gizarteratzea.



"Herriz herri ibiliko gara udan Latuna Bando txarangiaz. Nafarroan beste txaranga baten be jotun dot, Altobarrio Band"



Irazu Aranburu mendi-korrikalaria Durangaldeko Kopako liderra da

Ekainaren 21ean burutu zen Berrizko IV. Amaraune mendi-lasterketa, eta Irazu Aranburu korrikalari mallabitarrek lehen postua eskuratu zuen lasterketa luzean. Emaizta horri esker, Durangaldeko Koparen lehen postuari eutsiko dio. Aranbururekin batera, 14 mallabitarrek eta ermuarrek parte hartu zuten proban.

Testua **DORLETA VIDAL**
Argazkiak **PEIO AGIRRE**

Giro sargoritsua izan zen Amaraune mendi-lasterketaren laugarren edizioan, baina hala ere Euskal Herriko zein kanpoko 251 korrikalari bildu ziren bertan, lehiarako gogotsu. Bi lasterketa egin ziren: luzea, 21 kilometrokoa, eta laburra, 12 kilometrokoa, eta horietako lehenean parte hartu zuen Irazu Aranburu



mendi-korrikalari mallabitarrek, garaipena lortuz. Aranburuk 1:49:00 behar izan zituen ibilbidea burutzeko; bigarren sailkatua, Ibai Cebrián durangarra, 33 segundo geroago heldu zen helmugara. Lasterketa horretan beste mallabitar batek eta sei ermuarrek parte hartu zuten (bost mutil eta neska bat).

Amaraune probako lasterketa luzea Durangaldeko Koparen baitan dago, eta Irazu lider da Kopa horren sailkapen orokorrean, orain arte burutu diren bi lasterketak irabazi eta gero (larunbatekoa eta Mallabiko 7 pago lasterketa).

Bestalde, lasterketa laburrean Mallabiko neska batek eta Ermuko hiru neskek eta hiru mutilek parte hartu zuten.





leapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL


BERTAKO OKELAK ETXERAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORAK ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBALEKU 3 - 943 170563 ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95



Errekaldeko piszina hutsik.
Argazkilaria: Klemen Corredera.

Mago Rosa liburua kaleratu du Txabi Arnalek

Txabi Arnal idazle ermuarrak *Mago Rosa* umeentzako liburua kaleratu berri du ekainean, OQO argitaletxearekin batera. Liburu ilustratu honetan mago diruzale baten historia kontatzen da, eta argitaletxearen esanetan, "testu dibertigarri eta apur bat ganberroaren bitartez, gizakiari estuki lotutako eta beti aktualitatekoa den gai bati heldu dio idazleak: pribilegioak eta jauntxokeria". Testuarekin batera, Rashin



Kheiriyeh ilustratzaile irandarrak sortutako irudiak jaso dira, olio-pintura, collage eta grabatua bezalako teknikak erabiltuta sortuak izan direnak. Liburua gaztelaniaz eta galegoz argitaratu da momentuz.

Eraldatzen abestia estreinatu du Momak-ek

Jon Andoni Moreno abeslari ermuarra buru duen Momak taldeak abesti berri bat estreinatu du ekainaren bukaeran, *Eraldatzen*, eta harekin batera Atxondon grabatutako bideoklipa zabaldu dute (eskaneatu ondoko qr kodea bideoklipa ikusi ahal izateko). Jon Momak azaldu duen bezala, "kolorea aldatzen duen hostoa bezalaxe, gu ere aldatzen goaz. Eta pa bakoitzak, pertsona bakoitzak, eraldatzen



gaitu, baina gu izateari ez diogu uzten. Aldaketa ez da galera, baizik eta bizi izan dugun zikloaren edertasunaren adierazpena". Bideoak seiehun ikustaldi baino gehiago izan zituen 24 ordu baino gutxiagotan.

Eskolabarriko ikasleek parte hartu dute Eusko Jaurlaritzak sustatutako Hackathonaren finalean



Maiatzaren bukaeran, Eskolabarriko 5. eta 6. mailako ikasleek parte hartu zuten Euskadiko Programazio eta Pentsamendu Konputazionalari buruzko I. Hackathonaren finalean, Bilboko Bizkaia Aretoan. Hackathon hitza "hacker" eta "maratoia" hitzen baturatik sortzen da, eta bi elementu horiekin dago lotuta. Eskolabarriko arduradunek jakinarazi dutenez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatutako Hackathon horrek pentsamendu konputazionala eta gaitasun digitalak sustatu nahi ditu txiki-txikitat, egungo eta etorkizuneko mundu digitalaren erronkei aurre egiteko prestatuz. Gainera, pentsatzeko modu estrategikoa eta programatua ere bada, ikasleei trebetasunak garatzen laguntzen diena, hala nola analisia, arazoen ebazpena eta lankidetzak. "Sari horrek Eskolabarrin urte osoan matematika klaseetan egindako lana saritzen du", adierazi dute irakasleek.

“Gazako bizipenek egin gaituzte musikari eta gizaki”

Mohammed Nasrallah “Hamadeh” · Sol Band musika taldeko kidea



2024ko apirilean alde egin zuten Gazatik Sol Band musika taldeko kideek, sei hilabetez gerrari eta suntsipenari aurre egin eta gero, eta ordutik Euskal Herriko leku ezberdinetan bizi izan dira. Uztailaren 15ean, asteartea, 20:30ean, kontzertua eskainiko dute Martxoaren 8a plazan, Komite Internazionalistak taldeak antolatuta.

Testua **DORLETA VIDAL** eta **JUANTXO DIEZ**

Nortzuk osatzen duzue Sol Band taldea?

Gazan elkarrekin hazi ginen betiko lagun batzuek osatzen dugu taldea: Rahaf Shamaly, Abdelkader Aboqassim, Said Fadel eta neu, Mohammed Nasrallah “Hamadeh” gara Sol Band.

Nongoak zarete?

Denok gara Gazakoak, Palestinakoak. Mina, edertasuna, erresistentzia eta arima darion tokia da Gaza. Hango bizipenek egin gaituzte musikari eta gizaki.

Zer jotzen du bakoitzak?

Ni abeslaria, gitarra eta kantuak idazten dituen naiz. Rahaf Shamaly taldeko abeslari nagusia da, ahots zentrala. Said Fadelek kaxoia jotzen du, eta gure emanaldiei erritmoa eta energia ematen diena da. Abdelkader Aboqassim “Kaddour” da gure teklatu-jotzai-

lea eta musika moldatzailea. Bakoitzak emozio eta istorio berezi bat gehitzen dio denon artean sortzen dugun musikari.

Zer kontatzen dute zuen abestiek?

Elkarrekin idazten ditugu kantuak: normalean, Saidek, Faresek eta nik idazten ditugu letrak, eta denok hartzen dugu parte konposizio eta moldaketetan. Gure kantuak okupazio eta blokeoaren mendeko bizitzaz hitz egiten dute, gure lurrarekiko maitasunaz, galeraz,

eta baita itxaropenaz eta duintasunaz ere. Batzuk Gazako haurrei eskainiak dira, beste batzuk isilean erresistentzian tinko eusten dioten emakumeei. **Noiz sortu zenuten taldea?**

2012an sortu genuen. Setiatuta ere, ez genion inoiz musika egiteari utzi. Palestinako folklorearen abesti herri-



koiak bildu eta estilo modernoekin fusioa egiten genuen. Azken sarraski hau hasi aurretik ere musika zen gure bizibidea, okupaziopean arnasa hartzeko tresna. **Zer lortu nahi duzue musikaren bitartez? Zein da zuen helburua?**

Gazaren ahotsa izan nahi dugu, isilaraziak izan direnen ahotsa. Musikaren bidez, gure nortasuna gorde nahi dugu, gure istorioak kontatu, eta beste kultura batzuekin zubiak eraiki. Ez dugu ospea amesten: askatasuna eta duintasuna baizik.

Noiz utzi zenuten zuen etxea? Zer utzi zenuten bertan? 2024ko apirilean utzi genuen Gaza, sei hilabete baino gehiagoz gerran eta suntsiketaren erdian biziraun ondoren. Guztia utzi genuen bertan: gure etxeak, gure grabazio estudioa, gure instrumentuak, gure orotzapenak... Nik, pertsonalki, aita hil aurretik eman zidan gitarra utzi behar izan nuen bertan; nire arima zeraman instrumentu hark. Geroago gure etxea suntsitu ondoren soldadu israeldar baitek lapurtu zuen gitarra. Gure familiak ere atzean utzi genituen —alde egin ezin zuten horiek—, eta gure zati bat haiekin gelditu zen.

Sarri hitz egiten duzue Gazan jarraitzen dutenekin? Bai, ahal dugun guztietan saiatzen gara gure familiekin hitz egiten, baina ez da erraza, Gazan ia ez baitago ez argindarrik, ezta Internetik ere. Hemen, Euskal Herrian ere jendearekin konektatzen saiatzen gara, askok maitasuna eta babesa erakutsi digute eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Musika da jende guztia-rengana hurbiltzeko guk daukagun modua.

"Ez dugu ospea amesten: askatasuna eta duintasuna baizik"

"Gure kantuek okupazio eta blokeoaren mendeko bizitzaz hitz egiten dute"

Zein da Gazako egoera? Hedabideek egia osoa erakusten dute?

Gazan egoterra katastrofikoa da. Toki eta eremu askotan bizitzea ezinezkoa da. Jendeak ez du ez jatekorik, ez urik, ezta aterperik ere.

Nazioarteko hedabide askok ez dute argazki osoa erakusten, maiz ez dute palestinarrek pairatzen duten eguneroko sufrimendua eta mina islatzen. Musika eta testigantzen bidez guk gure ahotsa altxatu nahi dugu, guk egiten ez badugu, inork ez baitu egingo.

Non bizi izan zarete Euskal Herrira heldu zinetenetik? Nola hartu zaituztete hemen?

Iritsi ginenetik hainbat tokitan ibili gara. Gaur egun Hernanin bizi gara. Harrera benetan beroa izan da. Jendeak, kultur taldeek eta erakunde batzuek ere maitasunez eta elkartasunez hartu gaituzte. Denbora luzez ikusezinak bagina bezala sentitu ondoren, gizaki sentitzen gara berriro.

Hemengo herritarrek badakite zer gertatzen ari den? Jendea kontzientziatuta dago?

Euskal Herrian jende askok badaki; badakite zer den okupaziopean bizitzea eta erresistentzia, beraz, ulertzen gaituzte. Hala ere, kontzientzia gehiago behar da: ez informazio hutsa, baizik eta Gazan gertatzen ari den giza oinazearen benetako ezagutza.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Etorkizuna garbi egon ez arren, sinesten dugu horretan. Ahotsa, instrumentuak eta entzun nahi duen jendea daukagun bitartean, aurrera jarraituko dugu. Palestina aske bat, Gaza seguru bat, eta artista batek bizitza arriskuan jarri gabe abestu ahal duen mundu bat amesten dugu.





ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Ermuko I. Mundialito antirrazista: hesiak apurtu nahian

Uztailaren 5ean Ermuko I. Mundialito antirrazista, antipatriarkala eta anfaxista ospatuko da, Colibres Elkartek antolatuta. Goizean goiz hasita, ekintza ezberdinak burutuko dira Ongarai Eskolako patioan eta herritar oro dago gonbidatuta, nahiz eta gazteak diren xede-taldea. Ekimen honen helburua da arrazismoaren kontra borrokatzea eta kulturartekotasuna bultzatzea, besteak beste.

Testua **DORLETA VIDAL**

Hiri handietako eredua oinarri hartuta, Mundialito berezia ospatuko da Ermuan uztailaren 5ean, larunbata, Ongarai Eskolako patioan. Colibres Elkarteko kidea den Ainhua Ganuza ermuarrak azaldu duenez, kirol-jardunaldia izateaz gain, ekitaldi kulturala eta politikoa izango da Ermukoa, eta haren helburuak izango dira, besteak beste, arrazismoaren kontra borrokatzea, kulturartekotasuna sustatzea eta kaleak eta espazio publikoak okupatzea. "Gure ustez, antirrazismoa bai ala bai antipatriarkala eta antifaxista izan behar da, hiru kontzeptu horiek oso lotura estua dutelako. Beste leku batzuetan ere mundialitoek kutsu hori izaten dute, baina guk esplizituki adierazi nahi izan dugu", esan du Ganuzak.

Migrazio askeak eta aukeratutako migrazioak babesten dituen Colibres Ermua elkartearen arabera, Euskal Herrian oro har, baina Ermuan bereziki, antirrazismoaren esparruan hutsune bat dago: "Beste arlo batzuetan, feminismoan edota antikapitalismoan, esaterako, pausuak ematen dira, baina antirrazismoaren kasuan lan handia dago oraindik egiteko, eta borroka hau berria ez den arren, horren aldeko ekintzak ez dira oso ohikoak. Mundialitoarekin nahiko genuke Ermuko gazteak, zuriak eta zuriak ez direnak, antirrazismora

batzea". Horretarako, kirolaz gain, sentsibilizazio tailerrak egingo dira, umeentzako ekintzak, bazkari herrikoia... eta edozein adineko pertsonak hurbildu ahal izango dira bertara, nahiz eta ekintza gehienak nerabeei eta gazteei zuzenduta egongo diren (kiroletan gutxieneko adina 13 urte izango da).

Egitaraua

Uztailaren 5ean egitarau zabalaz gozatzeko parada egongo den arren, Ainhua Ganuzak azpimarratu du Mundialitoa ez dela izango bakarrik ospakizun eguna, baizik eta aldarrikapenerako gunea ere: "Ekintza kultural eta komunitarioa izango da, kirola aitzakia hartuko duena herritar anitzak batzeko, batez ere gazteak, hesiak apurtzeko, eta arrazakeriari eta diskriminazioei aurre egiteko, kolektibotasunetik abia-

"Borroka hau berria ez den arren, antiarrazakeriaren aldeko ekintzak ez dira oso ohikoak"

"Folklorekerian erori barik, pertsona eta kultura arrazializatuak bistaratuko ditugu"

Futbol eta eskubalo partidetarako izen-ematea



"Colibresek zurtasun tailerrak, *escuelita* eta topaketa ezberdinak antolatu izan ditu"

tuta. Mundialitoak bistaratu egingo ditu pertsona eta kultura arrazializatuak, folklorekerian erori barik".

10:00etan emango zaio hasiera jardunaldiari eta ordu horretan hasierako berbaldia eta jokoetako arauak azalduko dira. Gainera, herriko pertsona bat omen-duko dute eta hark egingo du urrezko sakea. Jarraian, 10:30ean, eskubalo eta futbol txapelketei emango zaie hasiera, aurretik izena eman duten lagun guztiek parte hartuko dutelarik (egin klik ondoko orriko qr kodean izena emateko formularioa betetzeko).

Partida horiek jokatzen diren bitartean, ekintza ezberdinak egingo dira inguruan. Alde batetik, postalen tailerra burutuko da, eta parte-hartzaileek teknika ezberdinak aplikatzen ikasiko dute, tartean, ciano-

tipia, postalok sortzeko. "Behin sortuta, elkartasun mezuak idatzi, eta Ceutako, Melillako eta Mexikoko mugetara bidaliko dira, bertan dauden migratzaileei eta muga zeharkatzen ari diren pertsonen helarazteko", azaldu du Ganuzak. Gainera, umeentzako mahaitxoak egongo da goizean, eta 10:30etik 17:00ak arte arropa truke azoka, artisauen postuak eta gozo tradizionalen postuak jarriko dira.

Bazkaria doan

Eguerdian, bazkari herrikoia eskainiko da doan, bertara gerturatzen diren pertsona guztientzat, eta kafearekin batera, "Nola jokatu polizien eraso arrazisten aurka?" hitzaldia eskainiko du Colibres eta SOS Arrazakeria taldeetako kidea den Omra ermuarrak.

Bazkalostean, futboleko eta eskubaloiko finalak jokatuko dira, hala nola barruseko partidak ere. Azkenik, 18:00etan sari banaketa eta azken komunikatua irakurriko da, eta bukatzeko, Bilboko DJ Eromenaren musika saioaz gozatzeko aukera egongo da, 20:00ak arte.

Ekintza hauek guztiak aurrera eramateko, Colibresek asanblada irekia deitu zuen, eta Komite Internazionalistak batu zitzaion laguntzaile, hala nola hainbat norbanako ere. Era berean, ekitaldi honek Ermuko Udalaren babesa izango du.

Colibres Ermua duela urte eta erdi inguru sortu zen, arrazakeriaren kontra borrokatzeko, eta ordu-tik hainbat ekintza burutu izan ditu herrian: zurtasun tailerra (hilean birritan Lobianon egiten dena), *escuelita* (bigarren belaunaldiko neska gazteei zuzendutako jabe-kuntza eskola), hainbat topaketa edo mahai-inguru interseksionalak... Elkartek bost kide ditu eta haiekin harremanetan jarri nahi dutenek Instagrameko colibres_ermua kontura jo behar dute.



Ainhua Ganuza, Colibres Elkarteko kidea, Mundialitoaren egitaraua eskuetan hartuta.



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



www.quetzalmoda.com
Zubiaurre, 2 | 48260 ERMUA | 943170065

Ermuko hitanoa ikasteko Appa hi! aplikazioa aurkeztu da

Hikan trebatzeko aplikazioa aurkeztu zuen Ermuko Udaleko Euskara Sailak ekainaren 18an. Badihardugu Elkartearekin batera osatutako tresna honi esker, bost astetan hikaren oinarria eskuratu daiteke, egunez egun proposatutako ariketak eginez gero. Aplikazioa Google Play eta App Store dendetan eskuratu daiteke, eta berau osatzeko, Fernando Aranberriren eta Estibalitz Gonzálezen lan ezberdinetan oinarritu dira.

Testua **DORLETA VIDAL**

Ermuko hitanoa ikasteko interesa duten herritarrek tresna praktikoa daukate eskura ekainaren 18tik aurrera: Appa hi! aplikazioa. Klik batekin mugikorrera deskargatu daitekeen aplikazioari esker (erabili azpian dauden qr- kodeak), euskararen aldaera hori erabiltzen ikasi daiteke bost astetan, betiere proposatutako ariketak egiten badira. Hala azaldu zuten aplikazioaren aurkezpenean parte hartu zuten Ermuko Udaleko Euskara zinegotzia den Arri Araitztegik, Badihardugu Elkarteko koordinatzailea den Aintzane Agirrebeñak, Euskara Saileko teknikaria den Fernando Aranberrik eta Ermuko Euskararen aditua den Estibalitz Gonzálezek.

Aurkeztutako aplikazioak hitanoaren formak modu errazean eta ludikoan ikastea ahalbidetzen du, galdera-erantzuna sistemaren bitartez. Izan ere, Egunean Behin jokoaren sortzailea den CodeSyntax enpresa da alde teknikoaren arduraduna, eta joko arrakastatsu horren antzerako eskema erabiltzen da aplikazio honetan ere. Aintzane Agirrebeñak azaldu zuenez: "Egunean proposatzen den ikasgaiarekin lotutako azalpen teoriko batzuk irakurri ostean, galdera batzuk erantzun behar dira, hiru erantzun posibleetatik bat aukeratuz. Galdera guztiak ondo erantzun behar dira

hurrengo ikasgaia zabaltzeko; gaizki erantzun ezkeror, nahi beste aldiz saiatu daiteke, ikasteko bidea eskainiz". Galdera guztiak ondo erantzun arren, egunean partida bakarra jokatzeko aukera izango da, hala, aplikazioak berak markatzen du eraman daitekeen gehienezko erritmoa. "Atzera, aldiz, edozein momentutan joan daiteke, aurrez ikasitakoa errebasatzeko", zehaztu zuten. Beste alde batetik, erabiltzaileen artean lehiaketak sortzeko aukera ere ematen du, ikasketa prozesuari pizgarri bat gehituz.



"Herri askotan hika biziberritzeko eta pizteko nahia sortu da azken urteotan"

"Aplikazioan hika hizpide duten bideo, audio eta transkripzio ugari daude"

Material osagarria

Aurkezpenean aipatu bezala, herri askotan hika biziberritzeko eta pizteko nahia sortu da azken urteotan, eta horren emaitza da Appa hi!: "Orain gutxira arte Ermuan lagun artean eta gertuko harremanetan ohikoena zen hikan egitea, noka zein toka, hau da, andrazkoei zein gizonezkoei —azaldu zuen Estibalitz Gonzálezek—. Eibartar batek esan omen zuenez "Ermuan hi, daneri, Jaungoikuari be eitzeko kapaz!". Baina transmisioa etenda, galtzen joan da eta gaur egungo gazte jendeari berbeta arrotza egiten zaio".

Horiek horrela, aplikazioak beste herri batzuetako hitano formak ikasteko materiala jasotzen du ere (Ermua da Bizkaiko lehen herria), eta behin deskargatuta, herria aukeratu beharko da, hari dagozkion



Ezkerretik hasita, Fernando Aranberri, Arri Araiztegi, Estibalitz González eta Aintzane Agirrebeña.

formak ikusi ahal izateko. Era berean, jokalariai aukeratu ahal izango du ere jakinarazpenak nolan edo tokan jasotzea.

Hori gutxi balitz, Ermuko bertsioak badu ere bertako euskararen gaineko argibideak, hika ikasteaz gain Ermuko euskalkiaren berezitasunak hobeto ezagutzeko. Aplikazioan alde teoriko hau hornitzeko eta hitanoaren aditz formak osatzeko Fernando Aranberriren *Ermua eta Eitzagako euskara liburua* hartu da oinarritzat.

Material osagarria ere txertatu da aplikazioaren osagarri: hika hizpide duten bideo, audio eta transkripzio desberdinak, Gonzálezek eta Aranberri jasotakoak. "Ermuan ondarea jasotzeko zinta analogiko eta bideo grabaketa ugari egin dira, Badiharduguren bitartez digitalizatu eta kodifikatu direnak, eta jasota zeuden testigantza horiek erabili dira herriko hitanoaren adibide gisa", azaldu zuen Agirrebeña.

Bertaratutakoek herritarrak animatu nahi dituzte aplikazioa deskargatzera eta harekin praktikatzera, "Ermuan hika berriro eta belaunaldi desberdinen ahotik entzun dadin".



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arrai
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell
Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernod Ricard Wines
Faustino García Martínez.
T.943176075
arrai@arrai97.com | Pol. Goitondo-Goiako, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Maite Larburu musikariak kontzertua eskainiko du Ermuan uztailaren 22an

Maite Larburu abeslari eta musikari hernaniarrak kontzertu akustikoa eskainiko du Santixauetako egitarauaren barruan. Euskal Birusa Euskara Elkarteak antolatutako musika saio hau uztailaren 22an burutuko da, asteartea, 20:30ean hasita, elizpean. Sarrera doakoa izango da.

Testua **DORLETA VIDAL**

Maite Larburu (Hernani, 1979) artista polifazetikoa da (abeslaria, musikaria eta konpositorea), eta bere burua soinuaren artistatzat dauka. Musika klasikoan espezializatua, 16 urtez Amsterdamen bizi izan da, eta azken 20 urteak lanean igaro ditu Erdialdeko Europako talde historizista esanguratsuenekin, biolin-jotzaile hain zuzen ere.

Abeslari bezala ere ibilbide luzea dauka, eta dagoeneko bost disko kaleratu ditu: azkena, 2025eko apirilean, *Maizter* izeneko, Carlos Taroncher (klarinete baxua) eta Karlos Aran-gegi (bateria) bidelagunekin batera. Musikaren eta existentziaren efimerotasuna oinarri duen lan hau MusikBurô estudioetan grabatu eta ekoitzi da: "Soila eta soinu naturalistez betea, Larburuk berak grabatu du disko hau, atmosfera artisauegoa jaso asmoz —azaltzen da aurkezpen oharrean—. Hemen, gitarra klasikoa, ahotsa, biolina eta soinu organikoak, elkarrekin bizi dira txori, erreka, baso, haize,

auto, garabi eta auzoen zaratarekin, folk progresibo deitu litekeen zerbitu sortuaz".

Arte eszenikoak

Musikaren esparruan egindakoa nahikoa ez, eta azken urteetan arte eszenikoekin izan du lotura Larburuk antzezle zein musika sortzaile (*Amua* antzerkia eta *Hondamendia* pelikula), eta gaur egun konpositore dihardu filmegintzan (*Erreplika* dokumentalean), zein podcast formatuetan (Holobiontea, *De eso no se habla*), plataforma ezberdinetan entzun daitezkeenak.

Uztailaren 22an, asteartea, Ermuan izango da Maite Larburu, eta bere ibilbide musikalean landu dituen kantu ezberdinak eskainiko ditu, formatu akustikoan. Emanaldia 20:30ean hasiko da, elizpean, eta sarrera doakoa izango da. Euskal Birusa Euskara Elkarteak antolatutako saio honek Ermuko Udalaren babes du.





Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

ERMUA

Ferretaria

ANBOTO

Burdindegi

Orain

KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu

943 17 69 76

607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIJA)

www.ferreteriaanboto.es

5 urteko ikasleek gau bat eman zuten Lekeition



Maiatzaren 29an Anaitasuna Ikastolako 5 urteko haurrak Lekeitioko Trinkete aterpetxera joan ginen gau bat pasatzera. Bertako begiraleekin, ekintza ezberdinak burutzeko aukera izan genuen: irlara joan, Hiru Gurutzeta mendira igo, herriko plazan euskal dantzak ikusi eta arraun egin, esate baterako. Askorentzat, familiarengandik banatzen ginen lehenengo aldia izan bada ere, denontzat esperientzia ahaztezina izan da. Eguraldia lagun, programatutako ekintza guztiez gozatzeko aukera izan genuen. Primerako egonaldia izan da!

Pilota txapelketa burutu da Ikastolan

Ikastolan, euskal pilota txapelketa antolatu genuen Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleentzat. Txapelketa jolasaldietan jokatu zen, giro ludiko eta parte-hartzailea sortuz. Ekimen honen bidez, euskal kirol tradizional hau sustatu nahi dugu, eta aldi berean, euskara modu naturalean eta motibatzailean erabiltzea bultzatu. Ikasleen erantzuna oso positiboa izan da, bai jokoan bai euskarazko komunikazioan. Gure hizkuntza eta tradizioak bizitzeko modu dibertigarria da!



Armeria Eskolara txangoa egin zuten 4. mailako ikasleek


Anaitasuna Ikastolan robotika eta programazioaren aldeko apustua egin da duela hiru urtetik hona. Horri lotuta, maiatzaren 30ean, Eibarko Armeria Eskola bisitatu genuen 4. mailako ikasleok. Lanbide Heziketari lotuta, programazioak duen garrantziaz konturatzeko aukera izan genuen. Altxorraren bila jolasa medio, eskola goitik behera ezagutu genuen, bertako makinak laguntzaz pistak aurkituz, altxor kutxa irekitzeko klabea lortu arte. Eta ireki genuen!

Balerion jatetxia



Erdikokalian, elixa ostian euki zeбен Balerio Gandiaga Arrizabalagak eta Hipolita Mallagaray Aranburuk euron jatetxe eta harategixa, senarran izenetik ezagutuko zana. Bikotian alaba Rosario sukaldari aparta zan eta haren entzutiak lagun arteko bazkari, solteratako-agur eta ezkontza ugari erakarri zitxuan bertako jangelara. Zoragarri prestatzen zeбан arrain-zopia, baitxa bixigua eta legatza, rabak itzel eta etxeko okela kontuetan, txuletak zeken estimaziño haundiña.

Kanpuan, goitxik beherako kartel baten izena irakurri zeinkian. Barruan, alde batian harategixa eta bestian jatetxia. Jangelak bi, kristalezko ate batekin eta hormak apaintzen harri-jasotzailea, pelotarixa, basarrixa... dotore askuan margotutako euskal irudixak. Futbolina be bazan bertan, gaztien gozamenturako. Gerra aurreko urtietan goiko pisuan herriko errepublikazaliak batzen ziran eta hiru koloretako banderia jartzen zeбен balkoian txintxilika. 1931ko aprillan 14 historiko haren bezperan, bertan egon ziran batuta eta handik irten zeбен manifestazio zaratsuan Eibarrera, errepublika aldarrikatzeko ilusiñuak heguak emonda. Balerio 1971n itxi zan eta Adindunen lehen Egoitza bihurtu zan herrixari dohaintzan emon ostian. Gaur egunian Jubilatuen etxia eta Udal Gizarte Zerbitzuak dagoz bertan. Pasialekun, Goienkale partetik sartuta eraikin gaiñian dauazen aterpetxuak beti izango dira Balerioneko Terrazak.





NAHIA ROJO

Antsietatea medikalizatzen ari gara?

"Arazoa ez da dependentzia sortzen dutela bakarrik, tolerantzia ere eragiten dutela baizik"

Azken urteotan, fenomeno kezagarria ikusten ari gara: antsiolitikoen kontsumoaren gorakada esanguratsua, batez ere, COVID-19aren pandemiaren ondoren. Beldurrak eta isolamenduak hazkuntza salda perfektua sortu zuten antsietatea loratzeko. Eta, gizarte gisa, beste behin ere, irtenbiderik azkarrena bilatu dugu: pastilla.

Benzodiazepinak —antsiolitiko mota ohikoena— erraz errezetatzen dira. Batez ere, antsietatea eta insomnioa tratatzeko, baina askotan ez da behar bezain argi esaten sendagai horiek ez dutela sendatzen, lasaitu besterik ez dutela egiten... eta kostu handiarekin.

Arazoa ez da dependentzia sortzen dutela bakarrik, tolerantzia ere eragiten dutela baizik: gorputza ohitu egiten da, eta atzo funtzionatzen zuena, gaur egun ez da nahikoa. Konponbidea? Dosi gehiago. Mendekotasun handiagoa. Zailtasun gehiago zirkulu horretatik ateratzeko.

Ez nago botiken aurka. Une jakin batzuetan beharrezkoak dira, baita salbatzaileak ere. Baina zalantzan jartzen dut lehen baliabidea ote diren, eta ez azkena. Izan ere, antsietatea ere, deserosoa izan arren, seinale bat da. Hitz egiten digu. Zerbait ez doala ondo esan digu. Entzun gabe estaltzea, epe luzera, estrategia txarra da.

Horregatik, funtsezkoa da modu aktiboan kudeatzen ikastea. Nola? Bideak daude. Idatzi zer larritzen gaituen kaosa ordenatzeko. Elikadura zaintzea —Omega 3ak, adibidez, neuronen arteko komunikazioa hobetzen du—. Arnasa kontzientziaz hartu. Hausnartu. Mugitu. Ariketa fisikoa egin, batez ere aire zabalean. Eta behar baduzu, terapia psikologikoak ere lagun diezazuke.

Behin entzun nuen bezala, antsietatea ez da epidemia isil bat, oihu kolektibo bat baizik. Besterik gabe medikalizatzea isilaraztea da. Entzutea, ordea, sendatzeko lehen urratsa izan daiteke.

ROCÍO ALHAMA

Kordoban jaioa duela 44 urte. Bera baino hiru urte nagusiagoa den neba dauka. Puente Genilen (Kordoba) bizi zen 2008ra arte, ermuar batekin maitemindu eta Mallabira bizitzera etorri zen arte. Lau urteko semea dauka. Hezkuntza Berezia eta Psikopedagogia ikasketak egin zituen, eta bi urte daramatza euskara ikasten.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?

Egun guztia kalean ematen nuen, nebarekin eta nebaren lagunekin jolasten, ni nintzelako neska bakarra. Mutilen jolasetan ibiltzen nintzen: harrapaketan, botilekin, udan dragoitxoak hiltzen... taldeko bat gehiago nintzen!

Zer dela-eta etorri zinen Mallabira bizitzera?

2006an Ermuko mutil bat ezagutu nuen Kordobako Ferian, lagun baten bitartez. Garai hartan Bartzelonan bizi zen, baina etxea zeukan Mallabian, eta hona etortzea pentsatu genuen.

Erabaki erraza izan zen Kordoba uztea?

Bai, asko gustatzen zait bidaiatzea eta oso erraz moldatzen naiz. Probatzeko asmoarekin etorri ginen, eta oso gustura nago, asko gustatu zitzaidan herria eta bertako jendea ere.

Egon zen zerbait bereziki arreta eman zizunik?

Bai, buru beltza duten ardiek! Harrituta geratu nintzen! Sekula ikusi barik nengoen!

Oso ezberdina da bizimodua Kordoban eta Mallabian?

Bai eta ez. Oso irekia naiz eta jende guztiarekin hitz egiten dut, beraz, alde horretatik ez zait kostatu nire lekua egitea. Bestalde, Kordoban denbora asko ematen da kalean, tabernetako terrazetan, eta hemen jendea apur bat itxiagoa da.

Zer ikasi zenuen?

Hezkuntza Berezia eta Psikopedagogia ikasi nuen, eta esparru horretan egiten nuen lan Kordoban bizi nintzenean. Hemen ezin dut irakasle lana egin, euskara falta zaidalako, eta beste lan batzuetan jardun izan dut.

Zenbat denbora daramazu euskara ikasten?

Mallabira etorri nintzenean ikasten hasi nintzen, baina utzi nuen. Duela bi urte gogotsu heldu nion berriro, eta euskaltegira noa egunero. B1 ateratzea gustatuko litzaidake, nire esparruan lan egin ahal izateko eta herriko jendearekin hitz egiteko, baina hizkuntza zaila iruditzen zait.

Zer egiten duzu aisialdian?

Jostea gustatzen zait, eta Berbalaguneko jostakuntza tailerrean parte hartzen dut. Horrez gain, panpinak



egiten ditut EVA gomarekin, ibiltzea gustatzen zait, noizbehinka mendira joatea, gauetan irakurtzea...

Zein menditan egon zara?

Urko eta Egoarbitza: Oiz falta zait Hiru Txikiak egiteko! Gorbeia ere ezagutu nahiko nuke.

Irakurketa aipatu duzu... zein liburu duzu egun esku artean?

La paciente silenciosa. Ez dakit zein den egilea, ez dudalako inoiz horretan arreta jartzen. Eleberri beltza daukat gustuko, polizia-nobela, misterioak...

Papera edo liburu elektronikoa?

Papera gustatzen zait, baina bidaietan liburu elektronikoa eramaten dut.

Zenbat herrialdetan egon zara?

Europa ia osoan egon naiz, herrialde nordikoak eta Budapest kenduta, Estatu Batuetan ere bai, Mexikon... Askok gustatuko litzaidake Norvegiara joatea.

Udan, zein da zure plana?

Azken urteotan uda erdia L'Estartiten (Girona) ematen dugu, eta beste erdia Frantziako iparraldean.

Musika gustatzen zaizu?

Bai, denetik entzuten dut, heavya izan ezik. Manuel Carrasco asko gustatzen zait, eta euskarazko musika ere: Ken Zazpi eta Eñaut Elorrieta batez ere, Zetak... Ikusi dudan azken kontzertua Muse taldearena izan da.

Telebistan...

Plataformek eskaintzen dituzten telesailak eta pelikula ikusten ditut. ETB1eko Mihiluze eta Piztu telebista ere asko gustatzen zaizkit.

Jatun ona zara?

Primerakoa! Patatak errioxar erara eta *salmorejoa* asko gustatzen zaizkit.

Biziorik daukazu?

Jatea! Gazia eta gozoa: dena daukat gustuko!

Bertute eta akats bana?

Uste dut oso enpatikoa naizela, baina bestalde, batzuetan gehiegi hitz egiten dut.

**"Mallabira etorri nintzenean,
harrituta geratu nintzen ardiekin:
burua beltza dute!"**

**"Uste dut oso enpatikoa naizela,
baina batzuetan gehiegi hitz egiten
dut"**

Lagunekin zaudenean, nahiago duzu entzun edo hitz egin?

Momentuaren arabera, baina, esan bezala, asko gozatzeko hitz egiten.

Bizitzak zer irakatsi dizu?

Gehiago entzuten.

Badago egunero, kale egin gabe, egiten duzunik?

Gosaldu. Goiz jaikitzen naiz, bakarrik eta lasai gosaltzeko. Bestalde, Kordobako lagun batekin egunero-egunero hitz egiten dut, dei baten bitartez, edo WhatsApppeko audioen bitartez.

Zer eskatzen diozu lagun bati?

Gezurrik ez esatea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Injustiziek orokorrean: munduan gertatzen direnak eta kalean ikusten ditudanak ere.

Eta barrea eragin?

Edozerk, umore oneko pertsona naiz.

Eguneko zure momentua?

Umea lotara joaten denean nire momentua da telebista ikusteko, lasai afaltzeko, bikotekidearekin hitz egin...

Puntuala zara?

Normalean bai.

Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Ez, oso txarto. Ordengailuan ez naiz batere trebea eta mugikorrarekin ere, justutxo.

Etorkizunera edo iraganera bidaiatuko zenuke?

Iraganera, unibertsitate garaira!

Zure bizitzako egunik zoriontsuena?

Semea jaio zen eguna.

Zerbait egin ez izanaren pena duzu?

Ez, gustura nago egindakoarekin.

Zure publizitatea

DROGETEN
ITTURRI

943 17 93 50
688 63 28 76
drogeten@gmail.com

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

PADI Programa Ayuda Dental Infantil
943 17 04 04
info@clnicasanpelayo.com
San Pelayo zeharbidea 5 - ERMUA

SAGARDUI
poltsak

Zubiurre 20 - ERMUA - 943 170305

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

LA FORJA KAFETEGIA

1955

E R M U A

Urte horretako martxoaren 6an Cinema Ermua izenarekin eta elizaren bedeinkazio guztiekin inauguratu zen urteetan herriko zine eta kulturgune bakarra izango zena. Argazkia kanpo aldean aterata dago eta bertan ageri dira udalbatzako partaide batzuk, alkatea buru dela, abade-parrokoa bere akolitoreekin, Zinemako Batzordekideak eta Goardia Zibilen sargentoa. Ezker eskuma daude, besteak beste, Ignacio Urreta, Cosme Salaberria, Ignacio Onandia, aurrean Alberto Martinez mutikoa, Juanito Gorritxategi, Teodoro Zuazua, Bernardo San Ildefonso, Paco Izagirre, Juanito Amillategi eta Cosme Zubizarreta.



1975

M A L L A B I A



Argazki hauek 50 urte inguru dauzkate. Bertan ikusten da nola Antonio Urkidik eta Jose Luis Mugarzak proban egin zuten Goita auzoko jaietan. Laguntzaile agertzen dira Gerardo Madariaga, Pedro Gallastegi eta Jose Urkidi. Ikusleen artean, aldiz, Basilio Gallastegi, Raimunda Garitaonandia, Santiago Landa...

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZAK

Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako, astean jardun bat edo birako. Bidali CVa hortzklina.4@gmail.com

Higienista/auxiliarra behar da haurdunaldiko baja baten ordezkapena egiteko Ermuko hortz klinika batean. Uztailetik abendura, lanaldi osorako. Bidali CVA hortzklina.4@gmail.com

LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako matematikak, euskara eta beste ikasgaietako klaseak ematen ditut arratsalde. C1 ingelesa eta euskara. 688739358

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsalde zaintzeko. Esperientzia eta magisteritza ikasketekin. 648625209.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Uztailaren 15a.**



Ekainaren 19an.
Zorionak **Vega!** 8 urtetxo eder zure ondoan! Gozatu zure egunaz gure sorgintxo! Muxu pila etxekoan partez, izugarri maite zaitugu, maitxia!



Ekainaren 22an
Zorionak **Irati!!!** Ondo pasa zure eguna. Muxu potoloa etxekoan partez.



Ekainaren 19an
Zorionak **Aunitz!**
Zorionak etxeko gixontxoari! 5 urte haundi! Maitte zaitugu!



Uztailaren 6an
Zorionak **Oinatz!** Etxeko bihurritxuak 3 urtetxo jada! Segi hain irribarretsu, pilua maite zaitugu ta. Aitaxo, amatxo eta familia osoaren partez.



- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoiaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

MUSIKA ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com



SEHIGA

PROTECCIÓN LABORAL
PLAN BATERAKO
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia

Silvia

peluquería

688819336

SALLABENTEN KOTAK**Uztailaren 2an, asteazkena****19:00etan:** Pintxo lehiaketa:**Uztailaren 3an, osteguna****18:00etan:** Umeentzako jolasak. Amaitzean, askaria.**19:00etan:** Pintxo lehiaketa:**Uztailaren 4a, ostirala****17:00etan:** Haur-parkea.**18:00etatik 23:00etara:** Erdi Aroko merkatua zabalik.**19:00etan:** Gaita poteoa.**19:30ean:** Jaien hasiera.**20:30ean:** DJ emanaldia: Ikerb eta Danel Santiago.**23:00etan:** DJ emanaldia: Ikerb eta Danel Santiago.**Uztailaren 5a, larunbata****11:00etatik 23:00etara:** Erdi Aroko merkatua zabalik.**12:30ean:** Bermut saltseroa.**18:00etan:** Batukada feminista: Andrajozok + Sorginkada + BasFemband.**19:00etan:** Sardina eta saiheski-jan herrikoa.**23:00etan:** Dantzaldia: La Principal orkestra. Atsedernaldian, bingoa.**Uztailaren 6a, igandea****11:00etatik 22:00etara:** Erdi Aroko merkatua zabalik.**12:30etan:** Igel-txapelketa umeentzat.**13:30etan:** Igel txapelketa helduentzat.**16:30ean:** Bingo handia.**15:00etan:** Paella herrikoa.**17:00etan:** Sevillako dantzak:

Fit gipsy.

18:00etan: Dantza erakustaldia: Taupada.**18:30ean:** Sardina eta saiheski-jan herrikoa.**19:00etan:** Mokadua nagusientzat.**20:00etan:** Kontzertua: Versionarios.**22:00etan:** Jaien amaiera.**SANTIXAU****AURREKOAK****Uztailaren 14a, astelehena****19:00etan:** TXARANGEN JO-LASAK plazan: pepinoa eta triatloia.**20:30ean:** KONTZERTUA Martxoaren 8a plazan: Ari-ma Soul.**Uztailaren 15a, asteartea****19:00etan:** TXARANGEN JO-LASAK plazan: harra eta soka-tira.**20:30ean:** KONTZERTUA Martxoaren 8a plazan: Sol Band.**Uztailaren 16a, asteazkena****21:00etan:** HERRI OGITARTEKADA plazan, Irulitxak girotuta.**22:30ean:** TXARANGEN ABESTI-LEHIAKETA plazan. Irulitxak girotuta.**Uztailaren 17a, osteguna****19:00etan:** TXARANGEN JO-LASAK plazan: pringea eta jatorrizko bekak.**20:30ean:** BERTSO JAIALDIA

Martxoaren 8a plazan.

Uztailaren 18a, ostirala**19:00etan:** TXARANGEN JO-LASAK plazan: soka-tira finala eta kuboaren proba.**20:30ean:** DJ FESTA plazan: Mar.isk.al. Dejai.**22:00etatik 01:00etara:** PUNTU MOREA San Pelaion.**23:00etan:** KONTZERTUA San Pelaio plazan: GATIBU.**01:00etatik 06:00etara:** PUNTU MOREA Erdikokale Sean.**Uztailaren 19a, larunbata****9:00etan:** ERAKUSKETA-TXAKURREN LEHIAKETA Berano Nagusia auzoan.**9:00etan:** 7 FUTBOLA TXAPELKETA Betiondon.**10:00etan:** URKORA 69tan ezetz! XIVIGOERA KONTROLATUAREN IRTEERA plazatik.**10:00etan:** ARKU-TIRO PROBAREKIA plazan.**11:00etan:** XAKE-PARTIDA AZKAR ETA ALDIBEREKOEN ERAKUSTALDIA plazan.**16:30ean:** MUS TXAPELKETA plazan.**19:00etan:** DANTZA EMANALDIA plazan: Txindurri.**23:00etan:** KONTZERTUA: Los Zigarros.**Uztailaren 20a, igandea****10:30ean:** HERRIEN ARTEKO XXVIII. XAKE PARTIDA ARINEN TXAPELKETA plazan.**12:00etan:** I. BIZIKLETA JAITSIERA DH ERMUA, Ultza-

matik Santa Ana auzora.

19:00etan: MUSIKA JAIALDIA plazan: Ingoma Nshya eta Tsu Flying Georgians.**Uztailaren 21, astelehena****22:30ean:** PLAY-BACK LEHIAKETA plazan.**Uztailaren 22a, asteartea****19:00etan:** PROFESIONALEN ARTEKO LAUTERDIO PILOTA PARTIDAK plazan.**20:30ean:** KONTZERTUA elizpean: Maite Larburu.**Uztailaren 23a, asteazkena (Umeen eguna)****11:00etan:** HAURRENTZAKO TXUPINAZOA plazan.**11:15ean:** BURUHANDIAK plazan.**11:30etik 13:30era/16:00etatik 19:00etara:** UR PARKEA eta TAILERRAK plazan.**16:00etan:** BURUHANDIAK plazan.**17:30ean:** HAURRENTZAKO TXOKOLATE-JANA plazan.**18:30ean:** SANTIXAUETAKO VI. PADEL TXAPELKETA San Pelaio kantzeta.**19:00etan:** HAURRENTZAKO DISKO-FESTA plazan: Lorea Intxausti - Joanes Echeveste.**20:30ean:** APAR JAIA plazan.**22:00etatik 01:00etara:** FESTAN BLAI Martxoaren 8a plazan: Txurru DJa.**22:00etatik 01:00etara:** PUNTU MOREA Martxoaren 8a plazan.

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Otro Plan

como en casa

Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia




**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA


Desde 1971
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
ZORU ERRADIATZAILEA
AEROTERMIA

Erakusketa 943 17 15 56
Tallerra: 635 998 881
fontaneriavalle@gmail.com
Golenkale z/g (15 zkiaren parean)
ERMUA

PERTSIANAK


ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tallerra:
Zeamreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ITURGINTZA


24 orduko zerbitzua
ITURGINTZA
KONPONKETAK
GREMIO GUZTIAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81

ERROTULAZIOA


ROTEK
R Ó T U L O S

Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

ROTEK
LED PANTAILAK

ITURGINTZA

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA


PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26 · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA


ELECTRICIDAD
BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak

- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea
ERMUA

943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

MAITE LARBURU

akustikoa

ELIZPEAN
20:30ean

UZTAILAK 22

